

DIRU SARRERAK



Iruzkin honetan, dirua nondik aterako dugun ikertuko dugu. Proiektu honekin hasteko, diru kantitate handia beharko dugu, eta momentu honetan ez dugu nahikorik. Hasteko, alokairurako, argirako, urarako eta elektrizitaterako dirua beharko dugu, 3000euro gutxi gora behera. Psikologoak ordaindu ahal izateko, bakoitzari 1500euro inguru ordainduko diogu, hilabete bakoitzean. Horretaz gain, pastillak, vaperrak, zigarro elektronikoak eta txikleak ere ordaindu beharko ditugu, horretan 1000euro inguru erabiliko ditugu, horiek gure kostu finkoak izango dira. Horren batuketa 7000euro ingurukoak dira, eta gainera 200 sartuko ditugu bankuan hilabete bakoitzeko, ezbeharren bat gertatuko balitz, ordaintzeko dirua izateko.

Baina galdera da, nondik aterako dugu dirua? 25 urte baino gutxiago izateagatik eta 3 emakume taldean egoteagatik, 5000euro jasoko ditugu gobernutik, gero, jendeari laguntzeko proiektu bat denez, hainbat erakunde dirua eman digute, gai garrantzitsua iruditzen zaielako. hau guztia lehenengo hilabeteetan izango da, gero, hilabeteak pasa ahala, irabazten digunarekin, gure irabaziekin dena ordaintzeko asmoa dugu